

noaua

Udal errekontuak:
PSE-EE eta Hamaikabat
alderdien balorazioak

Sagardo zein babarrun
lehiaketetan izena
emateko garaia da

Larunbat honetan,
Jostailu Erabilien Azoka



Ion Korta

Hirugarren izan da

Euskal Herriko Mendi Duatloian



OGI BERRI

ARTISAU OKINAK

**ETA ORAIN...
IKUSI FUTBOL
PARTIDUAK
GUREKIN!**



egunero 06:00tik 21:00ra (asteburutan ere)
PUNTAPAX KALEA 16 (ARTZABAL)

URDAIRA

Sagardotegia

Abenduak 21 **BARRIKOTEA**
20.00h Urdairan
astelehenak itxita

Aginaga 943 37 26 91



 **URTINEA
LORATEGIA**

Zorionak eta urte berri on!



Egun osoa irekia • San Esteban auzoa ☎ 943 362 255 Faxa: 943 366 054 • urtinea@urtinea.com

Albiste iruditan

Pago eder bat opari, aro berriari ekiteko

Zorionak eta eskerrikasko gipuzkoar guztien partetik", hitzokin esker ona adierazi nahi izan zien usurbildarrei Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioko lehendakari Ainhoa Intxaurrendietak, erakundeak berak abenduaren 5ean erraustegiari lotuta Sutegin antolatu zuen ekitaldian. "Eredu ezberdin bat planteatu zenuten lehenengoak izan zireten", oroitzen zuen Intxaurrendietak, eta usurbildarrak izan ziren bere esanetan, Gipuzkoako eraldaketa bideratzen hasi zirenak. "Inork inoiz espero ez zuen bide bat" abiatu zuen Usurbilek eta zorionak eman nahi izan zizkien herritarrei, "errauskailua behin betiko atzean geratzea lortu duzue" eta.

Proiektu hau bertan behera geratu izanaren atzean egon den elkarlana nabarmendu zuen Intxaurrendietak. Urteetako ahalegina egun fruituak ematen ari dela zioen, herritarren, herri mugimenduen eta erakun-



Usurbilgo Itunean ageri den zuhaitza jaso zuten oparitan.

deen arteko elkarlanari esker hain zuzen. Eta hondakinen kudeaketan itxi berri den errausketaren aroak erakutsi duenez, GHK-ko lehendakariaren esanetan, "herritarrok eta erakunde-

ek bat eginez lor ditzakegu nahi ditugun helburuak". Esker ona usurbildarrei eta Udalari ere helarazi nahi izan zioten GHK-tik. Sutegiko oholza gainera igotzeko eskatu zien, legegint-

zaldi honetako eta aurreko alkate eta ingurumen zinegotzietzuei; Xabier Mikel Errekondo, Mertxe Aizpurua, Imanol Azpiroz eta Jose Maria Rivadeneiryari. Pago bat jaso zuten oparitan.

Laburrean

Datorren astean, urteko azken NOAUA! aldizkaria

Datorren astean urteko azken zenbakia plazaratu dugu eta hurrengo aldizkaria urtarillaren 10ean emango dugu argitara. Beraz, gabonetarako oharrik, deialdirik edo zorion agurrik plazaratu nahi baduzue, ekarri edo bidali emailaz erredakzioa@noaua.com helbidera, abenduaren 16rako.

Eperra ikastola laguntzeko otarrak, iristear

Sohütako Eperra ikastola laguntzeko otarrak ostiral honetan jasotzekoak dituzte Nafartarrak taldekoek. Asteburuan zehar banatzekoak dira. Abenduaren 22ko Santo Tomas Azokan borobilduko dute kanpaina. Besteak beste, mahai bat ipiniko dute frontoian eta eguerdi parterako kantujira berezia antolatu dute Kantu Taldekoekin.

Pirritx eta Porrotx ikusteko sarrerak salgai

Pirritx, Porrotx eta Marimotots "Bizipoza" ikusizun berriekin datoz abenduaren 21ean Oiar-do Kiroldegira. Argiaren Adiskideak taldekoen eskutik iritsiko dira gure artera. Emanaldi bikoitza eskainiko dute, 16:00etan eta 18:30ean. Sarrerak aurrez eskuratu daitezke 8 eurotan, Bordatxon eta Marijen.

noaua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaua.com /// www.noaua.com
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Ana Aizpurua.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria:

Aizpea Aizpurua.

Publizitatea:

Bea Alda,

publizitatea@noaua.com.

Diseinu berria:

Erroitiz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaua.com:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte,

Aizpea Aizpurua.

Banaketa:

Olatz Rezola, Arantxa

Zulaika.

Laguntzaileak:

Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbiete, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldua,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo,

Jon Etxabe, Alazne Begiristain,

Denis Elortza, Pello Aranburu,

Xabier Aranburu, Inma Balda,

Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre,

Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia

Torregarai eta Udarregei ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Luken Arkarazo

Duela aste pare bat bilagun eta ni Andoaingo Gaztetxe mitikora joan ginen diska atera berri duen Kauta taldearen kontzertu bat ikustera. Sarrera doan zelokotan susto ederra hartu genuen atean 6 euro ordaindu behar genituela esan zigutenean. Sartu orduko hasi ziren Kometa taldekoak jotzen, hauek ere diskoa aurkezten. Geu ordea, teloneo-roi kasu egin aurretik sarreraren prezioaren inguruko ika-mika bizian murgildu ginen. Nire lagunei gehiegizkoa iruditu zitzairen bi taldeak ikusteagatik 6 euroko sarrera bat ezartzea, nik eman nien erantzuna jarraian idatziko ditudan lerroetan azalduko dizuet.

Musika munduaren eta honen balio ekonomikoaren inguruko eztabaidak nonahi eta noiznahi ematen dira gure artean: *aizu sarrera ez zaizu osogarestia iruditu? edota hemen jotzeko deitu diet eta x diru eskatu didate! Sinistu dezakezu? Gure artean maiz entzuten ditugun esaldiak dira. Baina baloratzan al dugu ordea produktu hori, izan grabaturiko abesti edo zuzeneko emanaldi, gugana iristeko musikariek "inbertitzen" duten guztia? Gauregun musika entzuterako orduan*

Ez da debalde

interneten topatzen ditugun doako plataforma ezberdinek erraztasun ikaragarriak ematen dizkigute, eta ondorioz ahaztu egin dugu diska baten kalitateak zer suposatzen duen:

Hasteko entsegu lokalean igarotako orduak (egunak kasu askotan) ditugu, normalean airean igarotzen direnak, baina beste alde batetik gauza asko alde batera uztera behartzen zaituztenak. Lehen pauso honetan ezin dugu ahaztu ekoizlearen figura, zenbait talde garrantzitsuk (eta ez hain garrantzitsuek) euren abestien osaketetan laguntzeko kontratatzen duten pertsona da.

Taldeak behingoz kantuak ongi osatu eta egituratzen dituenean estudio sartzeko ordua heltzen da, euren lana plasmatzeko unea. Egia da diska bat grabatzea etxe bat egitea bezalako delat, nahi adina diru xahutu dezakezu betiere tokiaren, materialaren eta kontratatzen duzun arkitektuaren arabera. Gauzak errazte alderatik adibide baten bitartez gaia orokortzen saiatuko naiz: grabaketa estudio batean orduko 20 eurotik gora ordaintzen da normalean eta 10/12 abestiko diska landu bat grabatzen

erraz joaten zaizkizu hiru aste. Imagina egunean 5-6-7 ordu igarotzen dituzula grabaketetan jo ta su, egin kontuak.

Baina noski guztia ez da hori bukatzen, diska amaituta dagoenean kalitateko ordua iristen baita, eta hori beste aktore bat sartzen da jokoan: disketxea. Konpainia hauek musika mundua negozio moduan ikusten dute, ahalik eta etekin handiagoa eskuratzea dute helburu, ahalik eta gutxien arriskatuz. Zer esan nahi dudun honekin? Orduan eta talde potenteagoa izan, orduan eta baliabide gehiago jarriko dituztela zure eskura eta alderantziz. Baina onartu beharra dago kasu gehienetan laguntza handiak eskaintzen dituztela, batez ere diskaren kaleratze eta distribuzioetan. Azken pauso hau emateko aukera ordea ez dago talde guztien eskutik, eta asko eta asko autoproduzioaren bidetik joaten dira, honek suposatzen duen gastu gehigarriarekin.

Orain arte azalduko bidean gastea besterik ez dugu topatu. Baina lasai! Hortik aurrera disken salmentekin eta kontzertuetatik ateratako irabaziekin

grabaketa amortizatzen dute talde gehienek! Txantxetan ari naiz, hori da nahiko genukeena. Errealitatean ordea geroz eta jende gutxiago joaten da jaialdietara, eta are gutxiago dira diska erosten dituztenak.

Zertarako erosiko ditugu ba, gustoko dugun taldearen diskografia osoa ordenagailuko arratoiaren bidez klik-en bitartez eskura dezakegunean? Zoritxarrez, biniloekin gertatu zen bezala, CD-a nostalgikoen tzaiko produktu eksklusibo bilakatu da.

Ondorioz gaur egun musika taldeek etekin ekonomiko gehienak zuzeneko emanaldietatik lortzen dituzte. Diska asko saltzen dituzten taldeak? Hiruzpalau dira, ez gehiago.

Beraz ez zaitetz harritu, zure gustoko taldea ikustera joaten zarenean sarreraren bat ordaindu behar baduzu, musikariak ere amortizatu behar du, eta profesionala bada, bizi egin behar du. Beste modu batera esanda, nola uste duzue iritsi dela zure belarrietara bihotza iraultzen dizun abesti bikain hori? Ba ensaiatuz, ekoiztuz, grabatuz eta distribuituz. Eta hori irakurle maite, ez da debalde.

Aritz Gorriti | **Luken Arkarazo** | Idoia Torregerai | Luis Aranalde | Maialen Unanue | Nerea Zinkunegi | Imanol Ubeda | Joxe Piñas

Urkamendi-Iarbe bideko lubizia konpontzeko lanak abiatzeaz dira

Hala berri eman dute Usurbilgo Udaletik. Bide horretako lanen konponketa berehala hastekoak dira. Excavaciones Bergaretxe S.L. enpresari esleitu zaio obraren ardura. Baina ez hori bakarrik. Udarregirantz doan bideko beste bi eremutan ere konponketa lanak egitekoak dira. Batetik, Urkamendira iristeko bide zatian, eta bestetik, Udarregi parean 2011ko euriteek eragindako lubizia, aurrerago konpontzeko utzia zegoena Udalaren esanetan, horko lanak ere orain egingo dituzte. Baina azken konponketa lan hau, ez du Excavaciones Bergaretxe S.L. enpresak bideratuko. Oraindik esleitzeko baitu Udalak lan hauen ardura. Konponketa guztiok Gipuzkoako Foru Aldundiak Udalei inbertsioak bultzatzeko onarturiko ebazpenaren diru laguntzarekin finantzatu dira.



Foru Aldundiaren laguntzak baliatuko ditu Udalak, lubiziek eragindako arazoak konpontzeko.

Hiri eta industria hondakinen kudeaketa ikastaroa antolatu da



Besteak beste, hiri hondakinen bilketa eta tratamendua izango dira eskainiko diren ezagutzak.

Hiri hondakinak edota udalerriko eta industrietako bilketa eta tratamendua, edota lanpostuan laneko arriskuak prebenitzeko neurrien hartzea, gaiok jorratuko dira, Lanbidek diruz-lagunduta Udalak antolatu duen ikastaro berriaren baitan.

Hiri eta industria hondakinak bildu, garraiatu, baloratu eta ezabatzeko gaitasuna eskuratuko du (2. mailako profesionaltasun ziurtagiria), 2014ko urtarrilaren 16an abiatu eta apirilaren 1era arte luzatuko den prestakuntza saio hauetan parte hartzen duenak.

Saioak goizez izango dira, astelehenetik ostiralera, 8:30-14:00 artean, Atallu industrial-

LANBIDEREN LAGUNTZA

“Hiri eta industria hondakinak bildu, garraiatu, baloratu eta ezabatzeko gaitasuna eskuratuko du”

deko Prestakuntza zentroan, Zanziura 3 zenbakian. 270 ordu guztira. Ikastaroa langabetuei zuzendua egongo da. Eta parte hartzeko ezinbestekoa izango da, honako titulazio hau edukitzea: Bigarren Hezkuntzako lehen etapa, eskola-graduatuaren tituluarekin edo baliokidearekin.

Izen ematea, abenduaren 17ra arte
Baloragarria izango da bestal-

de, DBE jasotzailea izatea, 35 urtetik behera edo 45 urtetik gora izatea eta lan eskatzaile moduan gutxienez 6 hilabete egotea, denbora luzean lanik gabe egotea... Honez gain, baloragarria izango da baita, ikastaroa egiteko interesa duenak Mendebaldeko Donostialdean bizitzea, eta kontuan hartuko da sektorean, kamioiak gidatzen eta hauen mantenu mekanikoa burutzen ikasleak duen esperientzia. Euskararen ahozko erabileraren egokitasuna ere baloratuko da.

Izena ematea zabalik dago, abenduaren 17ra arte, Lanbideko bulegoetan; usurbildarren kasuan Lasarte-Oriako Lanbideko bulegoan.

Informazio gehiago udal-txean: 943 371 951.

EH Bildu Usurbil: “Aro berrian sartu dugu Gipuzkoa”

Koalizioarentzat, “hondakinak arazo eta mehatxu bihurtzen dituen eredia atzean utzi eta, hondakinak baliabide bezala kudeatuko dituen Zero Zabor aroaren hasiera markatu duen mugarria izan da” errauste planta proiektua bertan behera uztea. Eta adierazi dutenez, “zailtasunak zailtasun, esandakoa egiten dugula erakutsi dugu”.

Elkarlanaren emaitza

Elkarlanak ekarri du proiektua gelditzea, eta horregatik, “EH Bildutik, herritarrak zoriondu nahi ditugu erakutsitako ardura eta konpromisoagatik. Erabaki honekin hasiera emandako aro berrian ere guztion elkarlana beharrezkoa izango dugu, eredu aldaketa bururaino eraman eta herritarron osasuna eta ingurumena ardatz izango dituen Zero Zabor herrialdea eraikitzeko”.

Hain zuzen, koalizioaren esanetan, gizarte eredu kontsumista dago zaborraren eta errausketaren erroetan eta horregatik, eredu aldaketa beharrezkotzat jotzen du EH Bilduk. Aurrera begirako bidea zein den argi diote, “Zero Zabor eredia garatu behar dugu”.

Diputatuen Kontseilua: “Gipuzkoarrekin hartutako konpromisoa bete egin dugu”

Hala adierazi du Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak errauste planta proiektua bertan behera utzi ostean eginiko lehen balorazioan. Hitz emandakoa bete dutela. 2013ko azaroaren 13a, errauste plan-

ta proiektua behin betiko bertan behera utzi zuen akordioa ezagutzera eman zen eguna, gipuzkoarrantzat egun handi bilakatu dela diote.

Proiektu kaltegarri honen mamua betiko desagertu dela

eta gaineratzen duenez, “denon artean Gipuzkoa garbiago, osasuntsuago eta iraunkorrago baten oinarriak ipini ditugu”.

Aurrera begirako norabidea argia da, zero zabor bidea jo-

rratu asmo du Aldundiak. 2014an zabortegeak ixteko dagoen asmoaren aurrean, Diputatuen Kontseiluko kideen esanetan, azpiegiturak eraikitzen diren neurrian itxiko dira goneok.

Ricardo Crespo, PSE-EE

“Udaletxeari eskatzen dioguna eskola publiko batentzako lurra gordetzea da”

EH Bildukoek aurrekontu berrien ildo nagusiak aurkeztu zizkiguten duela hiru aste-ko NOAUA!n. Oposizioa jo dugu iritzi eske. Hauek dira PSE-EE eta Hamaikabat alderdietako udal ordezkariak egin dizkiguten adierazpenak. Datorren astean, EAJ-PNVrenak emango ditugu argitara.

NOAUA. Azken urteotako tendentzia aldatu egingo dela dirudi. Aurrera ateratzen bada, %8,8an igoko da udal aurrekontua 2014an. Orohar, aurrekontu hauen ildo nagusiek zer nolako inpresioa eman dizue?

PSE-EE. Sarrerak ikusita egia da aurrekontua igoko dela, 440.000€ gutxi gora behera. Eta horietatik aipagarrienak Fondo Forala, aurten igotzen dela; eta udal Gobernuak aurreikusten du Udaletxearen ondasunen salmenta, hain zuzen ere, 2 etxebizitzaren salmenta. Gu ez gaudela ados Udaletxeak dituen ondasunak saltzarekin, gure ustez 2 pisu horiek birmoldatu beharko ziren eta Eusko Jaurlaritzak dituen alokairu programetara bideratu. Usurbilen badauzkagu larrialdi sozialetara bideratutako etxebizitza gehiago, baina hori beste irtenbideren bat izan daiteke. Salmenta hauengatik 240.000€ aurreikusten dute, sarre- ren igoeren erdia baino gehiago.

Beste ardatz bat tasak eta zergak dira. Aurten %2,1 igoko dituzte, eta gure eskualdeko beste herri batzuk %1,5eko igoera izango dute, Donostiaren kasu; edo Hernaniren kasuan %0,6koa. Ur eta estolderia kontu-



Aurrekontuen osotasunari emandakina aurkeztu die PSE-EEK.

tan izanik, aurtengo sarrerak 65.000€ igoko dira adibidez.

Gastuei begiratuta, guk beste era bateko gastuak egingo genituzke. 110.000€ aurreikusten dituzte gastu juridiko izena duen partida batean, 90.000€ igotzen dena. 90.000€kin beste gauza asko egin daitezke. Noski, ez gaudela ados hondakin bilketa sistemarekin, aurten gastuak 59.100€tan igotzen dira eta gainera beste partida berri bat asmatu dute,

41.500€ errekin hondakin bilketa ize- nekoea. Nik uste nuen kamioien erre- kina Garbitaniak ordaindu behar zue- la hondakinen bilketaren kontratua izateagatik. Hemen ekarpen bat egin dugu, nola ez duten atez ateko sis- tema birpentsatuko, eskatu diogu udaletxeari, 10.000€ko partida bat bermatzeko, poltsa konpostagarriak biztanleei emateko, organiko ontzie- tan jartzeko.

Gizartegintzan adibidez etxez etxe-

ko zerbitzuko gastuak 14.500 jais- ten dira eta beste 14.000€ kendu dituzte eguneko zentroaren kude- aketarako.

N. Agerialdeko eraikina egoki- tu, Txokoaldeko plaza eraberri- tu, Bidegorri sarea sustatu... Pro- posatu diren inbertsioak egoki ikusten al dituzue?

PSE-EE. Udaletxeari eskatzen dio- guna, eskola publiko batentzako lurra gordetzea aurreikustea da. Guk egingo diren inbertsioez apar- te, Usurbilgo irteera birmoldatuko genuke Orio aldera, Atxegalde beka- ldean adibidez. Beste inbertsio mota batzuk kirol arloan eta konkretuki kiroldegian egingo direnak dira. Garrantzitsuak ikusten ditugu, bai- na ez dakigu zer nolako beharra dagoen, zer egingo diren kanpo beste inbertsio asko egin behar dira atal honetan, eta eskatuta beharren zerrenda oraindik ez dugu jaso, beraz ezin dugu aztertu batzuk bes- teak baino beharrezkoak diren ala ez.

“Haur Eskolara egin behar duten espaloia ahaztu dute”

NOAUA. Zuen alderdiaren iri- tziz, 2014ko aurrekontuak osa- tzeko orduan zertan asmatu du udal gobernuak? Eta zertan kale egin du edo zer ez du kon- tuan izan?

PSE-EE. Esan beharra daukagu asmatu dutela herriko taldeei

emandako dirulaguntzen kopu- rua mantentzen. Egia da aurrekon- tua igotzen denez dirulaguntzak igotzekeela, baina beno...

Eta guk uste dugu Haur Esko- lan egin behar duten espaloia ahaztuta dutela. Beharrezkoa den inbertsioa da, gehiago kontutan

izanda aurtengo ekarpena Haur Eskolarako 73.000€tan jaisten bada.

Baita ere, 2 pisuen salmenta akats izugarria dela uste dugu. Honekin, alokairuko politiken alde- ko aukera ezin hobea galduko dugu Usurbilen.

ANORGA TXIKI S.L.
KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak · beira bikoitza
- segurtasun beirak · dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak · barandak · kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

ALKORTA
AUTOZERBITZUA

Baserriko haragia

- Frutak · Barazkiak · Etxeko produktuak · Izoztuak

Beheko kalea 4, ATXEGALDE AUZOA 943 36 57 42

Hamaikabat udal taldea

“Egunerokotasunerako aurrekontuak dira, gobernuak ez ditu ideiak, ez du lidergorik erakusten”

NOAUA. Udal aurrekontuekin zabilzate, lehen gogoeta bat?

Hamaikabat. Lehen gogoetak ez du euroekin lotura zuzena, irakurketa politikoagoa du. Aralar alderdiaren ahotsa desagertu egin da. Hautes-kundeetan Aralarri botoa eman ziotenek ordezkari independente eta libre galduta. Hasera haseratik adierazi zaigu aurrekontuen eztabaida honetan, aurrekontuak EH-Bildurenak direla.

Usurbilek pluraltasun politikoan galdu du. Ahots bat itzali da.

N. Azken urteotako tendentzia aldatu egingo dela dirudi. Aurre-ara ateratzen bada, %8,8an igokoa da udal aurrekontua 2014an. Orohar, aurrekontu hauen ildo nagusiek zer nolako inpresioa eman dizue?

Hamaikabat. Tendentzia ez da aldatu, tendentzi aldaketa bat sumatze-ko gutxienez bi datu behar dira. Datorren urtean ikusiko genuke benetan tendentzi aldaketa baten aurrean gauden edo ez. Zenbaki hutsean geratzea ere analisi sinplista da; aztertu behar dira diru iturriak non gehitu diren eta horiek etorkizunean sostengarriak diren. Eta analisi sakonago hau ez du gainditzen aurtengo aurrekontuak. Dirusarrera nagusi bat (222.000 euro) erabilpen soziala duten bi udal etxebizitza salduaz lortzen dira (Santueneakoak); beraz, nahiko artifizialki puztu da aurrekontua.

Aurtengo aurrekontua 10,360 milioikoa da; iazkoa, 9,935 milioikoa; ondorioz, igoera %4,28-koa da.



Josune Urquia eta Luismari Ormaetxea, Hamaikabat-eko udal zinegotziak.

HAMAIKABAT

“Dirusarrera nagusi bat (222.000 euro) erabilpen soziala duten bi udal etxebizitza salduaz lortzen dira (Santueneakoak); beraz, nahiko artifizialki puztu da aurrekontua”

Argibide hauek eginik, inpresioak: Egunerokotasunerako aurrekontuak dira, gobernuak ez ditu ideiak, ez du lidergorik erakusten. Aldizkari ofizia-

lean zer dirulaguntza azaldu, hura lortzeko bidea jorratu.

Soldatak ordaindu, konponketa eta mantenimendu lanak egin eta ezer gutxi. Kanean entzuten dena errepikatzea besterik ez dugu: legegaldi hau, alkatetza hau, ezer ez eginaren legegaldi izango dela; eta legegaldien azken aldean sartuak gaude...

N. Agerialdeko eraikina egokitu, Txokoaldeko plaza eraberritu, Bidegorri sarea sustatu... Proposatatu diren inbertsioak egoki ikusten al dituzue?

Hamaikabat. Kurioso da. Aitatu diziguzun adibideak iazko aurrekontuan ere bazeuden. Udal gobernuak (EH-Bildu) ez ditu ideiak. Txokoaldeko plaza 2013an eraberritzeko zen. Ez da egin eta berriro aurrekontuetan azaltzen da. Bidegorri sarea paperetan bai baina errealitatean ez da ikusten, asmo hutsa da. Asmo hauekin ados gauden? Noski baietz!!! Guk nahi duguna da eginak ikustea, gobernuari txispa ikusi nahi diogu, egiten ikusi nahi dugu.

Ez gaudena batere ados da ikastola pribatu batek erabiliko duen eraikina zabaltzeko (255.000 euro) erabilpen sozialerako diren bi udal etxebizitza saldu beharra izatea; hau bada “politika ezkertiarren” adibidea... nolakoa ote eskuinekoa!

Aurrekontu honetan usurbildarrek noizbait “eskola publikoa” izan dezaten ez da urratsik ematen.

Zabor kontutan (udal langileen soldata kontutan hartu gabe) 844.000 euro gastatzea - ia mantenimendu inbertsioetan bezain beste (863.000 euro) - ez da normala.

Eta guzti honetarako hiru politiko liberatu behar izatea ere, ez da normala.

“Udal estruktura eta zerbitzuak ez daude egoki dimentsionaturik”

NOAUA. Zuen alderdiaren iritziz, 2014ko aurrekontuak osatzeko orduan zertan asmatu du udal gobernuak? Eta zertan kale egin du edo zer ez du kontuan izan?

Hamaikabat. Iaz ere adierazten

genuen; udal gobernuak ez da jabetzen udal estruktura eta zerbitzuak, gaur egungo egoerari erreparatu, ez daudela egoki dimentsionaturik. Ez da jabetzen diru sarrerak oso baxuak izaten jarraituko dutela beste bizpahiru urteetan, gutxi-

nez.

Ez da jabetzen “economia de guerra” aplikatu behar dela eta ez dela nahikoa gehiengo absolutoa izatea. Udal egoera ekonomikoa oso larria da eta aho batezko akordioak bilatu behar ditu.

LOGOPEDA

USURBIL 635 70 13 74

LATAILLADE

ITURGINTZA

Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak eta mantenimendua

Aristitxo 8, behea 943 363 348 - 609 888 021

Eskubide sozialen urraketei

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Gutunaren lanketa abiatzearen da Usurbilen. Gai honen inguruan, uztailetik hona zenbait batzar burutu dira herrian. Hitzorduotan zehar, “taldea osatzen eta eztabaida esparru ezberdinak lotzen egon gara”, berri eman dutenez. Taldea osatu da eta orain bi lanildo nagusi jorratzen hasiko dira: batetik, kartaren edukien lanketa abiatuko da, baina bestetik lokaletik ere lan egin nahi dute, Usurbilen eman daitezkeen eskubide urraketak identifikatu eta errespetatuak izan daitezzen.

Osatu den taldea, ekitear duten prozesua parte hartzaile honetaz mintzo da lerrootan. Zehaztasun gehiagoren berri emango dute ostiralean 19:30etan, frontoian deitu duten lehen agerraldian. Herritarrek ekarpenak egitera animatzen dituzte.

NOAUA! Zeintzuk izango dira talde honen egitekoak?

Taldearen egiteko nagusia Euskal Herriko Karta Soziala eraikitze prozesu parte-hartzaile dinamizatzea izango da, finen, parte-hartzea izenetik izanera pasa dadin. Horretarako, prozesu parte-hartzaile honen printzipio nagusiak, partaidetza, parekidetasuna, inklusibitatea eta aniztasuna, gardentasuna edota kolektibotasuna izaten saiatuko gara.

Honez gain, talde honen beste funtzioa herrian jasotako ekarpen eta hausnarketak Karta idazteaz arduratzen ari den Talde Sustatzaileari bideratzea izango da, jarraian ekarpen hauek Euskal Herriko eragile sozial eta norbanako ezberdinei irekia den Asanblada Nazionean hautatuak izango direlarik. Eta azkenik, gure fun-



Karta Soziala eraikitze prozesua Euskal Herri mailan ari da garatzen.

HELBURU NAGUSIA

“Euskal Herriko Karta Soziala eraikitze prozesu parte-hartzaile dinamizatzea izango da gure egiteko nagusia”

tzio garrantzitsuenetakoa prozesua bera uneoro zabaltzea izango da, gaur atzo baino gehiago garelako, eta bihar, gaur baino gehiago izango garelako.

Karta osatzeko ze egutegi planteatu asmo duzue?

Ibilbide luze baten hasieran gaude. Izan ere, Euskal Herriko Karta Sozialaren eraketa prozesua ez baita Kartaren edukien eztabaida hutsera mugatzen, prozesu hau herritarren eskubideak erdigune izango dituen herri baterantz bidea urratzen hastera baitator. Aipatu bezala, arnas luzeko prozesua izango den arren,

epe motzean Kartaren gaineko edukiak eztabaidatzeko asmoa dugu abendu eta urtarrila bitartean. Eztabaida kolektibo hau, abenduaren 17an burutuko dugun batzar irekiarekin abiatuko dugu.

Eskubide sozialen kartaren eratzea ze fasetan dago orain?

Gaur gaurkoz, Kartaren beraren edukien gaineko eztabaida hastear gaude, beraz, hausnarketak sustatu eta ekarpenak biltzeko urratsaren atarian gaude. Honen aurretik, prozesuaren metodologia zehazteko prestaketak burutu ditugu eta eztabaida fasea indarrez hasteko, norbanako, kolektibo eta eragile sozial ezberdinen atea jo dugu prozesuari buruz informatzeko. Edukien gaineko hausnarketa amaitu ondotik, Karta idaztea amaitu eta eduki horien zabalpen eta atxikimendu kanpaina abiatuko dugu, eskubide horiek bermatzeko lanabesak hausnartzearekin batera.

“Burujaetza ez da helburua, bidea baizik”

NOAUA! Zer ekarpen egingo du karta sozial berriak?

Lehen aipatutakoaz gain, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren eraikitze prozesuaren ekarpen nagusietako bat, burujabetza praktikan jartzea izango da, burujabetza ez baita helburua, bidea baizik.

Horregatik, herritarrok ahalduntzeko balioko du, kolektiboan jarduten dugunean gure ingurua eraldatzeko dugun botereaz jabetu, eta botere hori erabiliz, Euskal Herriko gizon eta emakumeok jendarte bidezko, anitz, inklusibo eta solidario bat eraiki dezagun, eta gure borondatez, beste inposizio eta injerentziarik gabe.

aurre egiteko ordua



Duela hiru aste nazio mailako aurkezpen ekitaldia egin zen Bilbon.

NOAUA! Zer eztabaidatu eta zer nolako erabakiak hartu nahi dira karta eratzeko prozesuan zehar?

Gogoratu, testuinguru honetan, ekonomia bankarien eta espekulatzailen zerbitzura jarri dela, Espainiar eta Frantziar Estatuetakoko gobernuen eskutik eta Euskal Herriko gobernu ezberdinek jarraiturik. Honela, herritarren eskubideak murrizketa etengabea jasaten ari dira. Gauzak honela, alde batetik, Karta honen edukien oinarri izango diren eskubideak zehaztea izango da eraketa prozesu honen erronketako bat. Finean, bi helburu lortzeko: batetik, Euskal Herrian bizi garen pertsona guztiek bizi-baldintza duinak eskuratu ahal izateko, oinarriko eskubide sozialen aitortza eta erabileraren bitartez; eta bestetik, honetarako, gure ekonomia eta gure baliabideak herritarren zerbitzuan jartzeko, euskal instituzio eta alderdi politiko ezberdinek helburu berberarekin jardun dezaten exijituz.

Eratze prozesuaren beste

AURKEZPENA

“Prozesuaren aurkezpen agerraldia ostiral honetan egingo da, frontoian, arratsaldeko 19:30ean”

erronketako bat, ikuspegi lokalago batetik, herritarren eskubideak zehaztu ondotik, eskubide hauen bermearen Usurbil mailako diagnostikoa egin eta eskubide urraketa identifikatzea izango da, jarraian ahal den neurrian eskubide hauek errespetatzeko lanabes lokalak diseinatu ditzagun.

Karta bera noizko egongo da prest?

Prozesu honen baitan epe motzean ditugun mugarriak adosteko, abenduaren 14ko Asanblada Nazionala burutuko dugu. Bertan, herri ezberdinetako egoera eta erritmoak aztertu eta horren arabera, herrietako erritmoak errespetatuko dituen epemuga jarriko dugu hausnarketa fasea amaitu eta Karta labetik aterako den egu-

na zehazteko.

Gonbita herritarrei...

Ahal den neurrian herritarren-gana iristen saiatu garen arren, seguru gaude askorengana ez garela oraindik iritsi. Horregatik, herritarrei dei egingo diegu, prozesu hau bere egin eta antolatuko diren eztabaida eta ekimen ezberdinetan parte har dezaten. Prozesu honek arrakasta izatea nahi badugu, ezinbesteko baita eskubideen urraketak pairatzen ditugun herritarrok izatea prozesu honen birika. Finean, eskubideen gainbehera etengabe honen aurrean, herritarrok bide berriak urratzeko garaia dugu, elkartzeko garaia dugu.

HITZORDUAK

Abenduak 13, ostirala

19:30 Prozesuaren aurkezpen agerraldia frontoian.

Abenduak 17, asteartea

19:00 Kokapen batzarra Potxoenean.

Informazio gehiago: eskubidesozialenkarta.com

Bada garaia alternatiba bat, aldaketa sozial eta politiko bat Euskal Herrian bultzatzeko

- Bada garaia Euskal Herriko emakume eta gizonok bestelako proiektu ekonomiko eta sozial bat eraiki dezagun Euskal Herriarentzat, eskubide eta betebeharrak berdinez.

- Bada garaia euskal gizarteak gizarte eredu bidezko eta solidarioa eraiki dezan, bere borondatez, beste inongo inposaketa edo injerentziarik gabe.

- Horregatik, batzar nazional honetan erabaki dugu eztabaida prozesu bat irekitzea, inplikazio sozial eta sindikalarekin, datorren udazkenean gizarte gutunerako proposamen baten behin betiko erredakziora iristeko, alegia, Euskal Herrian bizi garen pertsona guztion sentipena eta gehiengoaren interesa jasoko dituen behin betiko proposamen bat erredaktatzeko.

- Gure nahia da eztabaida prozesu honek herri-harresi bat eraikitzea eramatea azkenean, botere ekonomikoak gehiengo sozialaren kontra zuzentzen dituen eraso guztiei aurre egiteko; halaber, gure asmoa da gizarte gutun hau tresna bihurtzea, bai indarrak biltzeko exijitzen dugun alternatibaren inguruan eta bai herri honetako borroka ahalmena bateratzeko, benetako aldaketa sozial eta politikoa Euskal Herrian lortu arte.

* eskubidesozialenkarta.com web orrian jasoa



Ion Korta, mendi duatloiko podiumean

Euskal Herriko Mendi Duatloiko onenen artean amaitu Ion Kortak Arregi usurbildarrak. Sailkapen orokorreko hirugarren postuan, abenduaren 1ean Zubietan ospatu zen azken probaren ostean. Baxurde Txiki taldeko kidea pozik eta oso gustura da noski, osatu duen denboraldiarekin. Ez da gutxiagorako. Merezitako atsedenaldia hartuko du orain, 2014ko probei ekin aurretik. Lerrootan iragartzen duen moduan, urte berriarekin batera, erronka berriak ditu jomugan.

NOAUA! Zubietan bosgarren, sailkapen orokorrean hirugarren. Denboraldia amaitu osteko lehen inpresioa?

Ion Korta. Zubietako lasterketa gazi-goza izan zen, matxura mekaniko bat izan bainuen. Bestela gustura, Zubietako proba oso polita da. Jende asko zegoen ikusten, taldekoak eta herritarrak. Hirugarren postuan sailkatzea ez nuen espero. Urtetik urtera kirol jarduera guztietan maila igotzen ari da, hemen ere bai. Lehengo urtean egin nuen saiakera bat, bost probetan parte hartu nuen. Iaz ibiltzen nintzen lehenengo hamarretan, lehenengo sailkatuarekiko bost bat minutura. Aurten hamar lasterketatetik zortzi, lehenengo bost postuetan amaitzea lortu dut, eta lehenengo sailkatuarekiko denbora oso gutxira, minutu pare batera asko jota.

Zubietako proba, ikusgarria eta gogorra izan zen, mendiko ibilbide zatia batez ere?

Zubietan beti da gogorra. Iaz ere oso gogorra izan zen, jende gehien erretiratzen den lasterketa izango da. Eta lokatza baldin badago, gogorra eta oso teknikoa da. Bizikleta as-



“Hirugarren postuan sailkatzea ez nuen espero”, hala adierazi digu Ion Kortak (argazkia: Egoitz Bengoetxea).

ION KORTA

“Lehia oso sana dago partehartzaileen artean. Denboraldi amaierako bazkaria egin genuen Araetan”

ko kontrolatu behar da. Baina oso ondo antolatua dago.

Zirkuitua hirugarren amaituta saritu zaituzte. Pozik noski?

Hamar lasterketa izan dira eta azkenean lasterkariok koadrila bat gara. Lehia oso sana dago gure artean. Denboraldi amaierako bazkaria egin genuen Araetan eta han banatu ziren sailkapen orokorreko sariak, zirkuitua kategoriatan banakoz irabazi zuten. Beste sari bat eman ziguten lasterketa guztietan parte hartu genuenoi. Oroigarri bat. Baita mailotak ere. Asteburuan Katalunian egon gara Euskal He-

rriko selekzioarekin. Hara zeintzuk gindoazen ere Zubietan iragarri zuten.

Mendi duatloi proba hauetik etorri baita, Kataluniara joateko gonbita?

Zirkuitu katalaneko lasterketa bat da. Nahiko maila ona dago. Hara joan eta Euskal Herria ordezkatu eta aldarrikatzea zen helburua. Euskal Herri mailako mendi duatloi zirkuitua hain zuzen, federaziotik kanpo antolatzen dute. Lagun talde bat da. Hiru helburu dituzte; kirola sustatzea, herri txikietara iristea eta Euskal Herria nazio gisa aldarrikatzea. Aurten alde horretatik Lizarran egin da Euskal Herriko Txapelketa, bertako udalak diru laguntzarik eman ez duen arren.

Kataluniako probaren ostean, orain bai, akabo denboraldi luze hau?

Martxoan hasi nintzen. 25 bat lasterketa inguru egingo ni-

tuen. Mendi zeharkaldi edota beste proba batzuek gain. Federazioarekin martxoan hasi nintzen Eibarko duatloian. Duatloi batzuk egin, gero Euskal Herriko zirkuituko triatloi proba guztiak egin ditut. Udan gelditu nintzen. Eta irailaren 14tik orain arte, Euskal Herriko mendi duatloi zirkuituan parte hartu dut.

Fisikoki egurtu ederra?

Fisikoa baino gehiago da neke psikologikoa. Azkenean zirkuitu bat lehiatzean astero egon behar zara ondo, astero entrenatu behar duzu, ezin duzu hutsik egin. Horrek bai estresatzen du. Bukararako estresa, gehiago izan da psikologikoa. Eguraldia ere txarra azken probetan. Lasterketak urrutik, etxekoek ezin joan hara urrutik zegoelako. Horrek nekatu nau. Gainerakoan, beste urteekin alderatuta aurten lasterketa motzak egin ditut. Gehienez bi ordu inguruko lasterketak.

“Gabonak aprobetxatu nahi ditut, senide eta lagunekin”



Ion Kortaren zaletasuna haratago doa. Herrian kirola sustatzen dihardu, Baxurde Kroseko lagunekin batera.

NOAUA! Orain merezitako atsedendia...

Ion Korta. Ez dut ezer egin nahi. Gelditu eta gabonak aprobetxatu nahi ditut, senide eta lagunekin.

Etenaldia eta gero, itzulera noizko?

Baxurde Txiki taldean, otsaila partean hasiko dira duatloi probetan parte hartuko duten bizpahiru kide. Oraingoan gainera, martxotik aurrera, distantzia luzeko probetan parte hartzeak dira zenbait kide; Espainian jokatu diren ironman probetan. Eta maiatzetik aurrera, hemengo triatloi proben zirkuitua egiten dutenen txanda izango da.

Gabonak igarota prestaketa lanei ekin behar beraz?

Igande goizero, 9:00etan Aginagan geratzen hasiak gara. Betiko erritmoan gabilta.

Hurrengo denboraldian, aurtengo guztia errepikatzeotan zara?

Asmoa, lasterketa gutxiagotan parte hartu eta maila on bat

ION KORTA

“Mendiko lasterketetan motibatu egin naiz eta badira mendiko triatloi batzuk, mundu mailakoak. Agian zirkuitu horretan sartuko naiz, bizpahiru lasterketa egitera”

lortzea da. Batez ere orain, mendiko lasterketetan motibatu egin naiz eta badira Espainia mailan mendiko triatloi batzuk, mundu mailakoak. Agian zirkuitu horretan sartuko naiz, bizpahiru lasterketa egitera.

Baxurde Txiki taldean nobedaderik?

Bi baja ditugu eta bi kide berri sartuko dira. Taldea irekia dago kide berrientzat. Inork duatloi edo triatloia probatu nahi badu, gurekin hitz egin dezala. Gainerakoan, 17 kide izango gara, eta urteroko martxan ibiliko gara. Bakoitzak ahal duena egingo du.

Aurtengo denboraldiari da-

gokionez, nabarmendu Iñaki Añorgak denboraldi oso ona egin zuen duatloi probetan. Triatloi probetan ere nahiko jende ibili gara.

Zer nola baloratzen dituzue Baxurde Krosean txertatu dituzuen berrikuntzak?

Gure ideia beti izan da herrian kirola sustatzea. 10 kilometroko distantzia hori luzetxo egiten zitzaiela batzuei eta hor hutsune bat sumatzen genuen. Horregatik, distantzia motzeko proba antolatu genuen, gehienbat herriko jendeari begira. Eta herriko jendeak erantzun oso ona eman zuen, kanpokoez aparte. Gure ideia, hurrengo urtean parte hartzaile kopuru berdintsuan segitzea da. Ez dugu ezta ere hazi nahi.

Jende kopuru handi horretan mantendu, partaideei tratu on bat eman, ordaintzen denaren truke eskaintza polit bat egin nahi diegu. Zirkuitua hobetzen ahaleginduko gara. Herriko jende dezente parte hartzen du eta horrekin gustura segi asmo dugu.

“Ez nuen uste hain ondo ibiliko nintzenik”

Nekatuta baina era berean motibatuta egon zara. Zubietako azken proba baino aste batzuk lehenagotik bazenekien jada, hirugarren postuan amaitu zenezakeela zirkuitua? Euskal Herriko txapelketan laugarren postuan sailkatu nintzen eta hor jada selekzioak deitu zidan nirekin kontatu nahi zutela, gauzak ondo bazihoazen. Horrek motibazioa eman zidan. Geroztik egin ditudan hamar lasterketetatik zortzitan lehenengo bost postuetan amaitu dut. Bitan podiumean izan naiz eta beste hirutan hiru edo laugarren. Konstantea izan naiz. Ahal dudan guztia entrenatzen dut baina oso denbora gutxi dut. Nituen ordu gutxi horiek kirolera bideratu ditut, baina ez nuen uste hain ondo ibiliko nintzenik.

Ondo aprobetxatutako orduak izan dira?

Aurten korrika maila oso ona izatea lortu dut. Nahiz eta txirridularia izan, bizikletan aldiz, sufritu dut.

Beti halere, bizikletan hobeto moldatu izan zara?

Aurten ez. Aurten korrikan nabarmendu naiz. Mendi duatloi zirkuituak duen ezaugarrietako bat da, bizikletan oso maila altua dagoela. Lehenengo hamarretan bost edo sei profesionalak izango ziren errepidean. Maila handia dago. Aldiz korrika, maila ez zen hain handia. Hor nabarmendu naiz.

Hori izan da emaitza on hauen giltzarria?

Zubietan ere hirugarren sailkatu nintzen korrika. Lehenengo bi sailkatuak korrikara dedikatzen diren lasterkari oso onak dira. Eta azkeneko korrika saioan, denbora onena egin nuen.

Arrasateko Akordeoi Lehiaketan

Zumarte Musika Eskolako hainbat ikaslek Arrasateko Akordeoi Lehiaketan hartu dute parte. Izen handiko lehiaketa da hauxe eta Zumartekoek, beste behin ere, maila ederra erakutsi zuten. Hauek izan dira Usurbilgo ikasleen emaitzak. Gutxigatik ez zuten urrea lortu. 20'5eko puntuazioa behar zen urrea lortzeko eta usurbildar denak 20ren bueltan ibili ziren.

A HASTAPENA:

Gorka Arroyo, zilarra
Maddi Zuloaga, zilarra

B HASTAPENA:

Intza Apezetxea, zilarra

C HASTAPENA:

Imanol Iribar, zilarra



Gorka Arroyo, Maddi Zuloaga, Intza Apezetxea eta Imanol Iribar, Arrasateko Akordeoi Lehiaketan parte hartzen.

Gabonetarako esku bete oparirekin dator Hurbilago Elkarteak

Lanak aurreratu ditu Olentzerok. Hurbilago Elkartetik pasa eta eguberrietarako opari sorta ederra utzi du jada. Ikusgai dituzue Sutegiko erakusketaretoan; mendiko bizikleta eder bat (Coluer Rave 270 markakoa), telebista bat (Grundig Led 40VLE630BH) eta tablet bat (Airis Onepad 735). Hiru opariok zuenak izan daitezke, abenduko erosketak Hurbilago Elkarteko establezimenduetan egiten badituzue. 10 euroko erosketak bakoitzeko txartel bat jasoko duzue saltokiotan.

Zuen datu pertsonalekin bete eta jasotako saltoki bereko kaxan sartu. Eta gero, abenduaren 31ra arte itxaron. Urteko azken egunean ospatuko den IV. Hurbilago San Silvestre



Opari hauen zozketa abenduaren 31n egingo da.

herri lasterketaren amaieran zozketatuko dira hiru opariok.

OPARI TXARTELAK ESKURAGARRI

Hauxe Usurbilgo ostalari eta dendarien bilguneak antolatu

duen gabonetako zozketa. Baina bada gehiago ere. Hurbilago Elkartetik eguberrietan opariak egiten lagundu nahi diete herritarrei. Lagun edo senideari detaile bat egin nahi baina zer egin ez duena-

rentzat, zalantzak izan edo buruhaustek dituen horrentzat, modu erraz eta praktikoan oparitu nahi duenari begira, formula aproposa aurkitu du Hurbilagok; opari txartelena. Usurbilen bada eta opariak egiteko non aukeratu; jabetxe edota denetariko produktuz hornituriko saltokiak ditugu. Hurbilago Elkarteko kide diren establezimenduren batera jo, opari txartel bat eskatu, ordaindu eta dendariak, ekimen berri honetarako espresuki sortu dituzten opari txartel bat emango dio bezeroari, "zorionak!", "maitasunez" edota "on egin!" dioten gutunazal ponpoxoetan sartuta. Opariak zozketatzeko edo opariak egiten laguntzeko proposamen ezin egokiagoa gabon hauetarako.


Iñaki Agirresarobe

Bertso olatuaren braustada

2013-12-13

Aurtengo bertso txapelketa-
ren azken geltokian gaude,
BECeko final handia entzuteko irrikan, gozatzeko eta olatu handiaren braustadaz zipiztintzeko aukeraz. Azken txanparako zortzikotea hor dago, nahiz zortziko handian nahiz txikian abesteko gogo biziz.

Bertsolarien maila oparoa

Batzuek atarian geratu dira, pena handiz baina aitortu beharra dago denentzat ez dagoela lekurik. Aurtengo txapelketan ikusi da, prestakuntza handia egon dela. Esate baterako, Mantxiren freskotasuna, ausardia eta arrazoiz erantzuteko dohaia asko eskertu da. Hau dena ez da gauerdiko gauaren ez-tula ezta Unai Agirrek erakutsi duen hizkuntzaren joskerara aberatsa ere.

Beñat Gaztelumendi gazte pres-tua txahal izatetik zezen izatera igarora, oholtza gainean ausardia eta ziurtasuna erakutsi du, batez ere bakarkako lanetan.

Amets Arzallusek arrazoia josten oso egoki ibili da, azkar erantzunez hitz egiten ariko balitz bezala.

Prestigioa gizartean

Aipagarriena saio guzietan aretoak lepo beterik egon direla da. Egun bererako baino 5 egun lehenago sarrerak agorturik egon dira. Batetik internetez erosteko auke-


Igande honetan jokatu da finala.

rak aurre hartu dio egun berean erosteko ohiturari eta ondorioz, jende asko sarrerarik gabe gelditu da. Jende gazte andana ikusi da saioetan eta poztekoa izan da, oraindik euskal kulturak zerbait emankorra baduela ikusteak. Hau dena kasualitate hutsa ez da, urte luzez Bertsozale Elkarteak egin duen lanaren uzta eta ondorioa da (bertso eskolen sustatzea, hezkuntz arautuan bertsozalaritza, auzo lana...). Hitz batean esanda, prestigioa izatea lortu du.

Gaien trataera

Gaiak aurkezterakoan nabarmentzeko izan da planteamendua-ren ildo. Egoera zabal bat aurkeztu zaie, labur aurkezturikoa, eta

honen aurrean elkarren arteko tal-ka sutsua izan gabe elkarri laguntzeko aukera ukan dute. Betiko ustea, serioegiak izan direla ere azpimarratu daiteke, hau da, neurri txikian bakarrak aurkezten direla umore aldetik, baina hala ere kartzelako lanean batzuek heldu diote beste alde batetik: Amets Arzallusek Elizondon, Sustrai Colinak Maulen... Dena den, bertso mamitsuak entzuteko parada izan da eta aldi berean gozatzekoak ere bai. 3 orduko saio batek gora behera handiak izaten ditu eta orokortasunari begiratu behar zaio.

Nazioartean ere oihartzuna

Geure gizartean ospea lortu bal-

din badu ere, kanpoan ere aztar-na uzten ari da. Finalaren astean jardunaldiak izango dira: Kubako repentisten hizlariak, Mexikokoak, Kataluniako trobadoreen egoera, AEBtako hizkuntzalariak... Hauek denak gero finalean ere izango dira entzule bere bat-bateko itzultzaileen laguntzarekin.

Bitxikeria bezala esan behar, 1993. urteko finalean, Donostia-ko Belodromora Ingalaterrako BBC telebista gonbidatua izan zela erreportaje bat egiteko. Beraien harri-duririk handiena zen nola 10.000 pertsona egon zitezkeen isilik bi bertsolarien aurrean. Munduko beste ikuskizun batean horrelakorik ez zela gertatzen zioten kazetari-ek.

Andoni Egañaren hutsunea

1986tik 2009ra arteko final guz-tietan egon den zarauztar bertso-lariaren hutsunea nabarmena izango da. Bere maila oparoaz gozatzeko izan dugun aukera fal-tan botako dugu: sakontasuna, zirikatzeta, erantzun azkarra, hiz-tegi aberatsa, komunikazioa, emo-zioa... Oraingo honetan hiru han-kako aulkiak jartzen ikusiko dugu BECen.

Egun handia

Finala egun handia izango dela ziur nago eta kalitatezko bertsoez gozatzeko aukera paregabea izango dute bertaratutakoek nahiz etxetik ikusiko dutenek.



Kima



MASAJE LEKUA

· KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA
· KOLONAREN HIDROTERAPIA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

USURBIL AUTOAK

· TAILERRA · KARROZERIA · KOTXEEN SALMENTA



SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!!

zerbitzu ofiziala

Zumartegi industrialdea



943 36 10 79

Hitzaldi sorta, egunotan

Ardura sustatzea, teknologia berrien erabilera edota hezkuntza sistema propioa hizpide izango dituzte egunotaroko herri eragile desberdinek antolatutako hitzaldiek. Hona hemen, hitzordu guztiak.

Abenduak 12, osteguna:

Ardura sustatzea

Izenburua: "Ardura nola sustatu".
Edukia: epe luzerako ardura sustatzeko estrategiak eta teknikak eza-gutzeko aukera Baikara federazioaren bidez.

- Ordua: 19:00.
- Tokia: Aginagako ludoteka.
- Antolatzailea: San Praixku Guraso Elkarte.
- Laguntzailea: Usurbilgo Udala.

Abenduak 16, astelehena:

Teknologia berrien erabilera

Hizlaria: Maite Goñi.
Edukia: azken urteetan, teknologia berriek (mugikorrek, ordenagailuek, tabletek eta antzeko gailuek) aldaketa handiak eragin dituzte gizartean, batez ere, komunikatzeko moduan. Komunikazioa asko erraztu dute, lanerako eta ikasketetarako lagungarri dira, abantaila asko dituzte, baina eragozpenak ere sortzen ditu teknologia berrien erabilera desegokiak.



Naroa Anabitartek hezkuntza sistema propioaz hitz egingo du datorren astean (argazkia: Argia).

kiak.

- Ordua: 17:00.
- Tokia: Udarregi Ikastola.
- Antolatzailea: Hitz-Aho Udarregi Ikastolako Guraso Elkarte.

Abenduak 19, Osteguna:

Hezkuntza sistema propioa

Hizlaria: Naroa Anabitarte.
Izenburua: "Publiko, pribatu...? Hezkuntza sistema propioa: geure estatuaren beharra".
Edukia: "Publikoa", "Pribatua",... askotan entzun eta erabiltzen ditugu horrelako kontzeptuak gure artean, bai hezkuntzaren gainean, eta baita bestelako gaiekin lotuta ere. Hala ere,

Euskal Herrian, kontzeptu hauen erabilera modu nahasian ematen da. Izan ere, herria menperatua egonik, gure menperatzaileen eskuetan dauden komunikabideek eta bestelakoek, haien interesen arabera erabilpena eta esanahia ematen diete hitz horiei. Edozein gai sozial tratatzeko, gure independentziaz hitz egitea ezinbestekotzat daukagunez, kontzeptu horien inguruko gogoeta politiko egitea du helburu hitzaldi honek.

- Ordua: 19:00.
- Tokia: Sutegiko auditorioa.
- Sarrera: doan.
- Antolatzailea: Nafartarrak.

2014ari begira, kirol ikastaro eskaintza zabala kiroldegian

Hemen, jardueren berri, ordu-tegi eta guzti:

- **Sabeleko gimnastika:** astelehen eta asteazkenetan, 16:00.
- **Zumba gazte:** ostiraletan, 18:00.
- **Cicling gazte:** ostiraletan, 17:00.
- **Entrenamendu funtzionala:**

astearte eta ostegunetan, 16:30.

- **Entrenamendu funtzionala:** astelehen eta asteazkenetan, 16:30.
- **Combygim:** astelehen eta asteazkenetan, 17:00.
- **Haurdunentzat gimnastika urretan:** hilabeteko ikastaroa:

astearte eta ostegunetan, 15:30.

- **Igeriketa entrenamendua:** astelehen eta asteazkenetan, 15:30.
- **Igeriketa entrenamendua:** astearte eta ostegunetan, 19:00.
- **Informazio gehiago** Oiaro Kiroldegian, edo bertara deituta: 943 37 24 98.

Santo Tomas Azokarako lehiaketak, martxan

Gurean, abenduaren 22an ospatuko dugu Usurbilgo Santo Tomas Azoka. Ohi bezala, babarrun zein sagardo lehiaketak antolatu ditugu. Gogoan izan abenduaren 19ra bitartean ekarri behar direla sagardo botilak edota babarrun kiloak, NOAUA!ko egoitzara.

Orduategia hauxe duzue: astelehenetik ostiralera, 9:00-14:00/16:00-19:00.

Informazio gehiago jaso nahi duenak, dei dezala NOAUA!ko telefono zenbakira: 943 360 321.

Sagardo lehiaketa

Partaide bakoitzak 8 botila ekarri beharko ditu, eta botila bakoitzeko 1,5 euro ordainduko zaio (sagardotegiek ezingo dute parte hartu).

1. Saria: 150 euro+txapela.
2. Saria: 90 euro.
3. Saria: 50 euro.

Babarrun lehiaketa

Partaide bakoitzak kilo bat babarrun ekarri behar du eta 12 euro ordainduko zaio.

1. Saria: 150 euro+txapela.
2. Saria: 90 euro.
3. Saria: 50 euro.

Afari beganoa gaztetxean

Afari beganoa dastatzeko aukera berria izango da ostegun honetan, abenduaren 12an, gaztetxean. Ohi bezala borondatearen truke, 20:30etatik aurrera. "Hil honetan plater bero beroak prestatuko ditugu hotzari aurre egiteko. Anima hadi!" honela luzatu dute gonbita.

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. © 943 362 725

Okindegia-Gozotegia

LABE-GOXO

ETXETRESNEN KONPONKETA

MARKA GUZTIAK, PREZIO ONEAN

645417665
[XABIER]
Usurbil

TXAPELDUN TABERNA

razioak ogitartekoak plater konbinatuak...

Muna lurra 2, 943 11 82 53

Elkarteen arteko mus txapelketako finala, larunbatean Aitzagan

Elkarteetan karta jokoan aritzen diren zale-tuen egun handia heldu da. Herriko elkarte-teen arteko mus txapelketako final handia jokatu da, larunbat arratsaldeko 16:30etatik aurrera. Urtero txandatzu joaten dira, edizio bakoitzean elkarte batek hartzen du bere gain, antolakuntza lanen ardura. 2013koan Aitzagak. Eta final handia bertan jokatu da. Elkarre bakoitzetik aurkeztuko den finalista taldea duzue jarraian:

- Zubietako Yoko Garbi elkartetik: Larrun Olaizola, Urtzi Alberdi, Xabier Arroio eta Ion Arroio.
- Olarriondoko Eguzki elkartetik: Antonio Lozano, Gabriel Sanchez, Lucio Vicente eta Juan Diaz.
- Andatzpe elkartetik: Tapia-Manuel, Ibarreta-Borda.
- Santueneko Ibai-Ondo elkartetik: Ilario Etxeberria, Juanjo Irazusta, Joxe Mari Mendiluze eta Moises Andres.
- Kalezarko Peña Pagola elkartetik: Pedro Mari Matxain, Joxe Makazaga, Fidel Balardi eta Julian Illaramendi.
- Atxegaldeko Mahaspildegik: Martxel-Igor eta Koldo-J.M. Lertxundi.
- Aitzaga elkartetik: Txiribita-Mingo eta Markel-Aizpe.



17 taberna eta jatetzek babesten dute mus txapelketa hau.

- Agiña elkartetik: M.A. Bereziartua, J.M. Begiristain, Antuan eta J.J. Manzidor.
- Txokoaldeko Erroizpe elkartetik: Igor Matxain, Iñaki Alustiza, Arkaitz Lizeaga, Mirotz Arrospide.

Finaleko hitzordua

Eguna: abenduak 14, larunbata.
Ordua: 16:30.

Tokia: Aitzaga Elkartea.
Antolatzailea: Aitzaga KE.

Futbol partidak Harane futbol zelaian

Abenduak 14, larunbata

10:00 Alebinak.

15:30 Neskak: Usurbil F.T.-Hondarribia F.E.

17:30 Preferentea: Usurbil F.T.-Lengokoak K.E.

19:30 Kadeteak: Usurbil F.T.-Lengokoak K.E.

Abenduak 15, igandea

10:00-12:30 Futbol Eskola.

Eskubaloi partidak Oiarde kiroldegian

Abenduak 14, larunbata

9:30 Alebin neskak:

Urumea-Udarregi 6A

9:30 Alebin neskak:

Udarregi 5A-Urnieta 6A

10:30 Alebin neskak:

Udarregi 5B-Udarregi 5C

11:30 Infantil neskak:

Udarregi B Usurbil-Leizaran B

12:30 Infantil mutilak:

Udarregi Usurbil-Leizaran B

14:15 Senior mutilak, 1. T:

Usurbil K.E.- Zarautz

16:00 Kadete neskak:

Usurbil K.E.-Zuazo Barakaldo

17:30 Jubenil neskak:

Usurbil K.E.-Zuazo Barakaldo

19:15 Senior mutilak, 2. N:

Ucin Usurbil- Zarautz

Abenduak 15, igandea

11:30 Kadete mutilak:

Usurbil K.E.-Aloña Mendi

San Silvestre lasterketan izen-ematea

Hurbilagok antolatuta, abenduaren 31n ospatuko da. Abenduaren 16an irekiko dute izen-ematea. Doan apuntatu ahal izango da, Hurbilago Elkarreko establezimenduetan edota laster martxan egongo den Usurbilgo ostalari eta tabernarien web gune berrian.

Futbolera itzultzeko gonbita luzatu zaie beteranoei

Futbolari ohia bazara, edo zaletua izanda kirol jarduera honetan aritu nahi baduzu, adi Usurbil FT-ko zuzendaritzak beteranoei begira egin berri duen deialdi honi. "Taldeko jokalaririk ohiak edo futboleko jolastu nahi duten zale-tuek zita berri bat dute Haranen", adierazi dute. Hala da. Beterano taldearen entrenamendu saioak antolatu ditu Usurbil FT-k. Ostiral iluntzero izango dira, 19:30etatik 21:30etara Haranen. Hitzorduotan parte hartzea animatzen dute futbol taldeen bilguneak.



Ostiral iluntzetan entrenatzeko deia egin zaie animatzen diren beteranoei.

TAXI
607 92 87 70
943 00 44 83
Angel (24h) USURBIL

JOSETXO IKATZETA
Iturgintza
TEL: 943 36 20 26
687 95 12 25

ANTXETA
taberna-jatetxea
eguneko menuak
ogitartekoak
plater konbinatuak
Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44

Zuen
publizitatea
hemen
943 360 321
publizitatea@noaia.com

ETXEBIZITZA

Salgai

Sanesteban kalean pisua salgai. 3 logela, sukalde-egongela, komuna, eta balkoia. Dena berriua. Tel. 699 680 265. 150.000€.

Baxua salgai Errekabikin (61 m2) + pisu azpiko trasteleku (61 m2). 2008ko obra berria. Logela, ikasgela, egongela-jangela-sukaldea eta komuna. Aire egokitu, bero-gailua, beira bikoitzeko leihoak... oso funtzionala. Bizitzen jartzeko. 649 895 858

Pisua salgai Munalurran. 637 309 209.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea. Iñaki (665736896)

Pisu bat salgai Munalurran. 3 logela, 65 metro, bertizteko. Fatxada eta portala berriua. Berriak. 138.000 € e. 617 972 350.

Atiko bat salgai Zubietan 110m2. 2008-an guztiz berriua. 3 logela handi, 2 komun, 30 m2 egongela. Haize egokitua. 250.000. 669 781 959 Julen.

Etxe bizitza salgai Kalezarren, 120 metro koadro. 16 m terraza, 80 m jardina eta garaje itxia 2 plaza. 676 453 176.

Roller etxeko modulo bat salgai Errioxako Fuenmayor herriko kanpinea. Informazio gehiagorako: 615 760 461.

Pisua salgai Munalurran, guztiz berriua, 1. pisua igogailu gabe, +60metroko trasteroarekin pisu azpian. 2 gela, aire egokitua, kale-fakzioa, parket... ikusgarria. 200.000 euro. 636393237.

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela balkoiekin (horietako bat itxia), bi komun, igogailua eta ganbar handia. Lehen 240.000 euro, orain 190.000 eurotan. 662 056 899.

Pisu bat salgai Atxegalden. 3 gela,

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.com Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

bi komun, sukalde eta salarekin. 662 439 880.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezetatant (216.000 euro inguru)

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lursailen. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldea eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisua salgai, San Esteban kalea 11n. 4. pisua. Kanpoaldera ematen du, eguzkitsua. Hiru gela, sukalde eta jangelarekin, komuna, terraza eta ganbarekin. 943 455 202 edo 697 530 792.

Pisua salgai, San Ignazio 5. 3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpoaldera, 20 metro koadro trasteroa, berrituta, fatxada, teilatua konpondu berriak. 677 471 648.

Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

Alokairuan

Pisu bat alokatzen da Santuenean. 2 logela, egongela, sukaldea eta trastelekuarekin. 550€ negoziagarriak. Tel. 637 962 568.

Logela bat alokagai. 200€ + gastuak. Kale Nagusia. 606 642 161.

Pisua alokairuan Santuenean. Berritua, 2 logela. Urtarrilatik aurrera. Fidantza gehi 2 hilabete aurreratuak. 630€

Etxebizitza alokatzen da Atxegalden. 3 logela, egongela, 2 komun eta sukaldea. Tel. 626 347 914.

Usurbilgo pisu batean, logela bat libre konpartitzeko. 290€ hilabetero, Wifi, ura, elektrizitatea eta gastu guztiak sartuta. Giro ona, pisu dotorea eta handia. 657 700 408.

Atxegalden pisu bat. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun, terraza eta igogailua. 637 309 209.

Gela bat alokatzen da Usurbilen. Pisua egokia eta gela handia. Tel. 691 898 800.

Etxe bat Txokoalden. 3 logela, komuna, sukaldea, egongela eta terraza handi bat. 688 863 366

3 gelako etxea alokagai erdialdean 700€ gehi gastuak. Gelaka ere alokatuko genuke. 630713583

Kaxkoan pisu bat alokatzen da, 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, ganbara eta igogailuarekin. 943 371 495 - 695767821-657711335

Usurbildarra naiz eta etxe bat alokatu nahi nuke inbiliarik bitarteko izan gabe. Interesatuak deitu mesedez 661568471 telefonora

4 logeletako etxebizitza bat alokatzen da Atxegalden. 659389707 nerezabala1@gmail.com

Pisua alokairuan Santuenean, 65m berritua, 2 logela, 650 euro. Tf: 667 438 145.

MOTORRA

salmenta, garajeak

2 Garaje (marra) salgai edo alokairuan. Biak batera edo aparte. Olarrondo inguruan. 607 333 966.

Garaje (marra) bat alokatzen da Kale Nagusia 60€ hilabetero. 657 700 408.

Garaje itxia alokatzen da Txaramunto auzoan. 15 metro karratuko. Tel. 667 71 50 75

SsangYong autoa salgai, Mercedes motorduna. Egoera onean. 1.500 euro. Joxe Mari 943361512

Garaje itxia salgai. 20 m karratuko. Kale nagusia, 26. Usurbil 23.000 euro. 674 343 184

Opel Zafira salgai, 1.7 81cv. 2010eko urrikoa. 25.000 km. Oso egoera onean. 652759267

Kale nagusian garaje itxi bat alokatzen da: ate automatikoa eta kotxea eta motoa sartzeko moduko 667984083

Garaje itxi bat alokagai Artzabalen, frontoi ondoan. 647120253

Lokal bat alokatzen da Atxegalden. 2 solairu ditu, eta 90 metro. Tel. 653 714 672.

Txaramunto kalean garaje itxia alokatzen da. 620 416 963.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Papelak ongi dituen mutil bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, etxeak garbitzen, sukaldeko laguntzaile moduan, harraskan garbitzen, peoi... 648 761 874.

Orduka lana egin nahi duen neska euskaldun bat naiz, eta garbiketara edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 635 715 424 Julia.

Neska arduratsuak lana bilatzen du interna moduan eta etxeko garbiketarak egiteko. 631 122 350.

Etxeak margotu eta dekoratzen ditut. Paisaiak, aurpegiak... agertzen diren koadroak egiten ditut. Altzariak konpondu. 634 181 059.

Ettxe lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. Tel. 608 34 04 84

Ettxe lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. Tel. 696 83 55 69

Usurbilgo neska euskaldun bat eskaintzen da arropak konpontzeko eta goizez etxeak garbitze-

ko. 696 601 795

Usurbilgo neska euskalduna, tituluduna eta esperientziaduna, haurrei ingelesko klase partikularrak eman edo etxerako-lanetan laguntzeko prest. 670461180. E-maila: oli_ireth@hotmail.com

Klase partikularrak ematen ditut, LH-DBH. Irakaskuntza ikasketak bukatzean eta lan honetan esperientziaduna. (618598071 lzarro)

Zerbitzari moduan, helduak zaintzen, umeak zaintzen edo saltzaila moduan lan egingo nuke. Tel. 690 079 418.

Klase partikularrak ematen ditut edozein irakasgaietan. Esperientziaduna. Ordutegi eta prezioak adosteko erabateko malgutasuna. 634417969(Amaia)

Udan edo ikasturtean zehar umeak zainduko nitzuke. Lan honetan esperientzia duen neska. 653724338

Erizaintzan graduatua naiz eta gai-xo dauden pertsonen erizaintzaintzarak emateko prest nengoke. (688801502 Irati)

23 urteko neska euskalduna naiz eta haurrak zaindu zein klase partikularrak emateko prest nago. Esperientziaduna. (630682716 Maddi)

Haurrak zaintzeko prest nago udaran zehar goizez zein arratsaldez. Irakaskuntza gradua bukatzean eta aisialdi talde batean begirale lanean (688803821 Uxue).

Klase partikularrak ematen ditut ikasturtean zein udan. Irakaskuntza ikasketak eta errefortzu klaseetan esperientziaduna. (647142701 Amaia)

Haurrak zainduko nitzuke goizez zein arratsalde. Irakaskuntzan diplomatu. (647142701 Amaia)

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketara. Arduratsua. 622 487 879.

Umeak zaintzen, garbiketara eta zerbitzari lanetan lan egingo nuke. Paperak eta esperientzia ditut. Tel. 666 773 813.

Heriotzak

Jose Mari Beloki Zubiria
88 urterekin hil zen
abenduaren 2an, Usurbilen



Eusebio Zulaika Alkorta
90 urterekin hil zen
abenduaren 4an, Kalezarren



Bixente Muguruza Zubiria
89 urterekin hil zen
abenduaren 6an, Usurbilen



Zorionak eta urte askuan Ibai!
Hilaren 15ean
6 urte! Nola ospatuko ote diagu aurten...?



Zorionak Rosa!
Maite zaitugun guztion partez.
Muxu handi bat.



Aupa Xomorro! Gero eta gutxiago falta zarete etxeratzen. Usurbildarrok eta aginagarrok hire belarriak berotzeko presa zaukeagu. Besarkada erraldoia guztion partez.

Neska bat eskaintzen da, esperientziaduna haurrak edo helduak zaintzeko. Edozein ordu-tan lan egiteko prest. 660041361

34 urteko neska arduratsua eta formala etxeko lanak egiteko lan bila, plantxatu, janaria pres-tatu... Garbiketa lanetarako oro har. 633 921 026 (Alejandra)

Matematikako klase partikula-rrak ematen ditut 672 427 870. Goi mailako ingeneritza ikaske-tak egin ditut.

Euskara klaseak ematen ditut. Euskal filologian lizentziatua eta irakaskuntzan esperientziadu-na. Haur eta gazteentzako kla-seak. Azterketen prestaketa (EGA, HABE, IVAP, IRALE). 653 710 073

Neska euskalduna, 47 urte ditut. Geriatriako titulua dut eta arra-tsaldetan jendea zaintzeko prest nago. 618 558 842

Usurbilgo neska gazte ardura-duna, arratsaldeetan 6-12 urte-tako umeei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten laguntzeko. Esperientzia. Prezioa adostuko da: 684092731

Esperientzia haurrak zaintzen, Udajolaseko begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

Neska gazte esperiantziaduna, akademian lan egindakoa, LH 1. mailatik Batxilergoko 2. maila-ara arteko ikasleei klaseak ema-teko prest. 685 772 602 (Nerea)

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase parti-kularrak emateko. 636601644

Matematika klaseak, maila guz-tietan, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Neska gazte esperientziaduna, heziketa premia bereziak dituz-ten ikasleei klase partikularrak emateko prest. 688 661 997 (Garbiñe).

Neska gazte bat eskaintzen da umeak zaindu eta klase parti-kularrak emateko. Telefonoa: 660 778 314 (Maddi)

21 urteko neska usurbildar eus-

kalduna, haurrak zaindu edo-ta klase partikularrak emateko LH-n DBH-n. Esperientziaduna. 666 041 971 (Ane)

Jardineritzako lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).

18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzean laguntzeko, morroi lanetarako, tabernan lan egiteko... 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.

Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo inter-na moduan. 608 774 999.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. Telefono zen-bakia: 609 632 030.

Zerbitzari edo sukaldari lagun-tzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Esperientzia handia, arduratsua den neska eskaintzen da garbi-keta lanetarako. 618 030 296.

Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568

Emakume esperientziadun bat umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egite-ko. Claudia. 663 117 579.

Gizonezko bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldean lagundu edo baserri-ko lanetan aritzeko. 627 206 451.

Emakume bateskaintzen da egu-nez, adineko pertsonak umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko, ostalaritzarako eta garbiketakegi-keko. 673 445 903

Emakumea eskaintzen da, ordu-ka etxeko lanak egiteko. 662 247 324

Lan eskaintzak

Estetizien bat behar da Usurbilen lan egiteko, tel 943 37 19 71

Emakume euskaldun eta espe-rientziaduna behar da Astigarragan, 6 hilabeteko haur txiki bat zain-tzeko eta etxeko lanak egiteko. Goi-zez, astelehenetik ostiralera. 635742503

Emakume bat zaindu eta etxeko

lanak egingo dituen interna behar dugu. Arduratsua den adineko emakume euskalduna hobestuko da. 943 300518 (M^a Angeles)

BESTELAKOAK

Baserri edo borda bat nahi genuke alokatu edo alokairuaren bidez ero-si. Oiloak, pottokak eta baratzak ditu-gu, beraz hektarea bat gutxienez behar dugu. Miren: 656742048; Alaitz: 658724075

Hemengo, Kiwiak eta babarrunak salgai. Tel. 943 364 937.

Behor bat salgai. Raid edo ibilaldie-tarako oso egokia. Izaera ezin hobea. Fisiko harrigarria. 620011889

Baserri bat eskaintzen da konpon-du eta negozio bat jartzeko Lasar-te inguruan. Tel. 626 728 463.

Josteko bi makina salgai. 943363201.

Indukziozko sua salgai. Bi urte ditu eta baldintza onetan dago. 943361 109.

Zubietan 10.000 m. baino gehiago-ko lursail bat alokatuko nuke. 635729637

Izotzetan ibiltzeko patinak salgai. 35

- 38 talla, merkeak. 649 482 775.

Ohe altu bat salgai. Mutilena eta koloretsua. Tel. 649 482 775.

Aurtengo eta hemengo babarrun-ak salgai, artoarekin batera egin-da. 637974994

Telebista salgai, Sony Egoera one-an, 80 euro. 653 014518

Pedalik gabeko bizikleta bat utzi nuen frontoian, ostiralean edo larunbatean. Decathlon-ekoa, kolo-re urdina, gorria eta txuria. 605 730 816.

Aginagako artoa salgai. Telefo-noa: 687706363

Erosi gasolina sorgailu elektriko-a, berria erabili gabe, 80 euro. 689880561

Hemengo intxaurra erosiko nuke, deitu 634 409 888

Ezkontzetan, festetan edo anto-latzen dituzuen ospakizunetarako Dj lanak egiteko prest. 615 713204 edo djlarra@usurbil.com

Su egurra salgai. Haitza eta Pagoa. 667 232 300.

Artzai txakurkumeak Orbea arrazakoak salgai 637 974 994

Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi? 665 745 071 (Iñaki).

Ezkontza zein ekitaldietan abes-teko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.

TRUKEAN, OPARI

2 ohe eta sofa bat behar ditu-gu premian den herriko fami-lia batentzat. 687 348 223

Inprimatzaileak, telebistak, pati-neteak, liburuak... Garbigune-an. Doan hartu daitezke. Aste-lehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbate-tan: 9:00-13:00 artean.

Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Abere-Landare Babeslea	943 376 650
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Taxia (Angel)	607 928 770
Udaltzaingoa	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Eusko Tren	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	LurraldeBus	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Anbulategia	943 362 013
Bake Epaitegia	943 372 336	Oa botika	943 376 076
Udarregi Ikastola	943 361 216	Iturralde botika	943 363 395
Haur Eskola	943 374 061	DYA	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Gurutze Gorria	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Emergentziak	112
Hastapen tailerrak	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Etumeta AEK Euskaltegia	607 609 379	Banco Popular Español	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	BBVA	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza	943 371 751	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
Usurbilgo Salvatore Parrokia	943 361 239	Telefonika	1004
NOAUA! Kultur Elkarte	943 360 321	Euskaltel	900 840 840

Goardiako farmaziak abenduak 12-abenduak 22

Osteguna 12	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Ostirala 13	ACHA-ORBEA	Hipodromo etor. 6. Lasarte
Larunbata 14	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32 Lasarte
Igandea 15	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32 Lasarte
Astelehena 16	URBISTONDO	San Franzisko 1 Lasarte
Astearte 17	GANDARIAS-URIBE	Iñigo Loiola kalea, 9 Lasarte
Asteazkena 18	ORUE	Jaizkibel 2. Lasarte

Osteguna 19	ACHA-ORBEA	Hipodromo etor. 6. Lasarte
Ostirala 20	RODRIGUEZ	K. Nagusia 42 Lasarte
Larunbata 21	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Igandea 22	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ Garikoitz Aldabe. Perkaiztegikalea 8 (Antziola). Hernani. 943 336 022 22:00 - 09:00

Agenda abendua

13 ostirala

- **Jostailu Azokarako bilketa** 17:00etatik 19:00etara Sutegiko erakusketa aretoan.
- **Karta sozialaren eratzea:** herritarren aurkezpen agerraldia. 19:30ean frontoian.

14 larunbata

- **Jostailu Azoka** 11:00-13:00 frontoian. 12:00etan animazioa Gaztelekuaren eskutik.
- **Jakin eta Jolas pailazoak,** 17:00etan Aginagako ludotekan.
- **Sen, Odolaren Mintzoa.** Aginagako Eliza Zaharrean, 23:00etan.

15 igandea

- **Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako Finala Sutegin ikusgai,** 16:00etatik aurrera.

Larunbat honetan, Jostailu Azoka



Ostirala bitarte jasoko dituzte jostailuak Sutegin.

Abenduaren 13ra bitartean, jostailuak batu-ko dituzte arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara Sutegiko erakusketa aretoan. Eta bildutako guztia larunbat honetako azokan jarriko dute ikusgai. Jostailuei erabilpen berriak eman eta haurren artean ohitura hori zabaltea da helburua.

Betebeharreko baldintzak

- Jostailuak osorik egon behar dute. Norberari hartzea gustatuko litzaiokeen moduan.

- Bilketa egunetan jasotzen dena musu-truk emango da. Horren truke, nahi izanez gero, txartel bat jasoko du bakoitzak azoka egunean beste jostailuren batengatik aldatzeko.

- Azokan jostailuak trukatzeko 8 urtetik behar-koek arduradun batekin parte hartu behar dute.

- DVD eta antzekoek jatorrizkoak izan beharko dute.

- Azokaren bukaeran geratzen diren jostailuak beharra duten erakundeetara bideratuko dira.

Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala zuzenean, Sutegin

Igandean, abenduaren 15ean Barakaldoko BEC-en jokatu den Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala lagun arte giro ederrean ikusi nahi duenak, Sutegira gonbidatua dago. Usurbildar talde baten ekimenez, EITB eskaintzekoa den finaleko arratsalde-

ko saioa zuzenean ikusi ahal izango da kultur etxe-ko auditoriotik. Bertsoak eta finaleko emozioa gertutik eta butaka eroso batean eserita ikusi nahi duenak, badaki zer egin; igande arratsaldeko 16:00etan gertura dadila Sutegiko auditoriora.

Datozenak

Udarregikoak, Gabon kantak abesten

Udarregi Ikastolako kalejira ibiliko dira datorren astean, abenduak 20 ostirala, gabon kantak abesten.

9:30-10:45 LH eta DBHko ikasleak gabon kantak abestera irtengo dira.

11:30-12:30 HHko ikasle, irakasle eta gurasoak gabon kantak abestera irtengo dira. Agerialdetik frontoira.

"Koka kola eta barea" ikuskizuna Aginagan

Ez Dok Amairuren argazki ofizialean ez dira azaltzen. Despertadoreak ez zuen jo goiz hartan. Baina Ray eta Nik showman paregabeek bere lekua merezi dute Euskal Kantagintzaren Olinpoan.

- Abenduak 20 ostirala.
- 22:00etan, Aginagako ludotekan.
- Antzezleak: Ramon Agirre eta Inaxio Tolosa.
- Sarrerak: 5 eurotan salgai aurrez, Aitzagan.



Ramon Agirre eta Inaxio Tolosa.

JE JON ELORZA
IGELTSERITZA
OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
 San Esteban 5, boxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
 -Ogitartekoak
 -Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Abenduaren 22an, **Santo Tomas** azoka Har ezazu parte **babarrun** eta **sagardo** lehiaketan



Partehartzaile bakoitzak babarrun kilo bat aurkeztu beharko du.
Sagardo lehiaketan, aldiz, zortzi botila.




Izen ematearekin batera, lehiaketan parte hartuko duten
babarrun eta sagardoak ekarri beharko dira NOAUA!ko egoitzara.

Izena emateko datak:

abenduaren 9tik 19ra (biak barne).

Informazio gehiago: 943 360 321



ONTZI ARINETAN PLASTIKODUN ONTZIAK, LATAK ETA BRIK-ak SOILIK



INGURUMENA GUZTION ARDURA DA BIRZIKLA DEZAGUN!



GOGORATU: ONTZI ARINAK ASTEARTE ETA OSTIRALETAN



GEURERA ITZULI

Bertako eta garaiko produktuen kontsumoa berreskuratzeko garaia da, modu jasangarrian ekoiztutako elikagaiak. Guztioi mesede egiten digun kontsumitzaile eta ekoizlearen arteko harreman zuzena. **Gure herriaren sustaraiak.**

www.bertakoaetagaraiakoa.net

 **Gipuzkoa**
EUSKADI



Gorka Lete
**Mendibitzu
Ekologikoak**
Trekor eta moxal haragia
zein ardi gazta ekologikoa,
zuzenean saltzen ditu.